

## KIROPTEROAK

Artikutzan zuhaitz kaduzifolio desberdinak daude (gehienbat pagadiak baina baita hariztiak, haltzak eta bestelakoak ere) baita bazkalekuak, antzinako baserriak eta erreka ugari ere, eta horrek guztiak habitat egoki bat eratzen du saguzarren espezie ugariarentzat. Babesgune asko daude, adibidez, zuhaizti zaharren zuloak, arrakalak eta pizidoek abandonatutako habiak, abandonatutako baserriak eta eraikinak, haitzulo eta meatze gutxi batzuk. Era berean, ehiza eremu ugari daude saguzarrentzat: basoen ertzak, zuhaiztien arteko soilguneak, muinoak eta ibaiak ... Aitzitik, bertako plubiometria handiak negatiboki eragin diezaieke saguzarrei, zeren euriak intsektuen jarduera murrizten du eta kiropteroek hegan egitea zailtzen du.

Soilik azken urteetan egin dira Artikutzako saguzarren faunari buruzko ikerketak eta artikulu honetan urte horietako lanak berrikusi dira. Artikutzan saguzarren 14 espezie aurkitu dira: saguzar arborikolen taldea (6 espezie) eta, oro har, espezie urriak eta gutxi ezagutuak; kiroptero fisurikolak (4 espezie), eremuko eraikinei lotua eta inguruetan taxon arruntak direnak eta babes gisa batez ere eraikinak ere erabiltzen dituzten espezie haragijaleak (4), nahiz eta batzuetan haitzuloren bat eta meatzeren bat ere okupatzen duten.

Nabarmendu behar da gutxi dauden eta mehatxatuta dauden lau espezie hauek: arratoi belarri handia *M. myotis*, basoko arratoia *M. bechsteinii*, arratoi bigotedun txikia *M. alcaethoe*, eta gau saguzar handia *N. lasiopterus*. Lehenengo biak "galtzeko zorian" katalogatzen dira. Egiaztatu da lau kiroptero ugaltzen direla: *R. hipposideros*, *M. bechsteinii*, *M. daubentonii* eta *M. alcaethoe*. Gainera, susmatzen da beste bost ere Artikutzan hazten direla, nahiz eta oraingoz ez den eme ugaltzailerik topatu: *P. pipistrellus*, *P. kuhlii*, *E. serotinus*, *B. barbastellus* eta *P. Auritus*.

Kiropterofauna anitz honen presentzia da ingurune naturala errespetatzen duen kudeaketa baten emaitza, eta bertan nabarmentzen da zutik dauden zuhaitz zahar eta hil ugari mantentzea, horiek babesgune ugari eskaintzen baitizkie espezie arborikolei. Nahiz eta orain arte egindako laginketak intentsiboak izan diren, ezin da baztertu hain ezagunak ez diren beste espezie batzuk egotea.